

BERRIGARA


10. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, ekainak 21

Asier Garitano

Ez du Eibarren jarraituko



OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa 2/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK

HIPOTEKA AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

AGUSTIN IÑARRA

Bedelkarreko tabernaria

- Herriko taberna eta jatetxeak Bedelkarren sartu zarete...

- Bai, 30 taberna eta jatetxe sartu berri gara Bedelkarren eta beste horrenbeste sartzeko asmoarekin dabilta. Ikusten dugu Bergaran ez dagoe-la anbienterik, hilda dagoela herria, eta ez dakit hori konpondu dezakegun baina zerbait antolatzeko asmoa daukagu. Taberna eta jatetxeak elkartzekotan, indar handiagoz jo dezakegu Udalarengana bere laguntza eskatzeko.

- Zer egitea pentsatu duzue?

- Helburua herriko jendea Bergaran geratzea eta ahal bada kanpokoak eta hona etortzea izango litzateke. Horretarako ideiak aztertzen gabilta.



San Pedro egunerako 15 urtetik beherakoentzako futbolin txapelketa antolatuko dugu, eta horrez gain eguerdi eta arratsaldeko poteoan txistulariak, dultzaineroak eta hankapaluak izango dira. Bestalde, urtero Bedelkarrek antolatutako egun bat izatea nahi genuke. Herritar guztien proposamenak aztertzeke prest gaude.

"Oraingoz, 30 taberna eta jatetxe sartu berri gara Bedelkarren"

I T U R R I O N E T I K

Hiru eskakizun aurkeztu dira udan Turismoa bulegoa eskuratzeko

Begarako Udalak udan zabalduko duen Turismo bulegoa eskuratzeko hiru eskakizun aurkeztu dira. Eskakizunen artean ez dago Begarakorik, hirurak kanpokoak baitira, Oñati, Bilbo eta Gasteizkoak, hain zuzen ere. Udalak hurrengo egunetan erabakiko du zerbitzua nori adjudikatu. Turismo bulegoa uztailaren lehenengoetan zabaldu da eta irailaren 2ra arte izango da zabalik, goizez 11:30etatik ordu bietara eta 16:30etatik 19:30etara; jaieguneetan eta igandetan goizez bakarrik zabalduko da. Nobedade bezala, aurtien foiletokak katalanez ere argitaratuko dira, eta ibilbide artistikoekin gidatxo bat kaleratuko da.

"Iturri onetik dakit Euskadin zirkuitu bat egingo dela datorren urtean, Iurreta-Donostia bitartean. Eta denon onerako izango da, bai kotxeak puntuan edukitzeko eta baita zaletuek, Madrilerajoateke, hemengo pilotoak bertan ikusteko aukera izateko ere"

AITOR ZABALETA

Kotxe gidaria
ETB

"Borges enpresak deitutako lehiaketara aurkeztu nuen botila sensuala dela esango nuke, mitxelín gabekoa. Horrelako lehiaketa batean diru saria baino garrantzitsuagoa da ikasten dabilen pertsona batentzat norberaren botila merkatuan ikustea. Hala ere, lastima da Borges enpresak Euskal Herrian olio botilarik ez komertzializatzea. Bueno, ez dakit pena ala suertea den, bestela amak botila denak erosiko lituzke eta"

ANDONI LARRAÑAGA

Diseinatzaile
grafikoa
EUSKADI IRRATIA

BERRIGARA JAUREGIA
20570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkartea.
Zuzendaria:
Alex Azkarate
Erredakzioa:
Agustín Mendibil
Agustín Elkoroberezibar
Agustín Larrañaga
Maketazioa:
Alex Azkarate
Publizitatea:
Alex Azkarate
Harpidetzak:
Berrigara Elortza
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Maripí Laskurain
Alex Labaien
Erredakzio kontseilua:
Berrigara Elortza
Agustín Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Komikiak:
Agustín Rodríguez
Berrigara Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugaldede
Berrigara Azkarate
Banaketa:
Berrigara gorri taldea
Irada:
1000 ale.
Primategia:
Berrigara Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
Copyright:
BERRIGARA
Lege gordailua:
BERRIGARA 191
ISSN:
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

**COPYCAT**

Ostirala: 22:30.

Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.

Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**MATIAS JUEZ DE LINEA**

Osteguna: 20:00

(Zine-kluba).



Zinea

▼▼ **Sigourney Weaver** (*Alien, Armas de mujer*), **Holly Hunter** (*El piano*) edo **Harry Connick Jr.** kantaria dira protagonista nagusiak. Jon Amielek zuzenduta, *Helen Hudson* psikologoaren (**Weaver**) eta *Daryll Lee* (**Connick**) hiltzailaren arteko erlazioa azaltzen zaigu. *Hudson* horrelako hiltzailak aztertzen aditua da baina oraingoan *Monaban* detektibearen (**Hunter**) laguntza ezinbestekoa izango zaio...

▼▼ *Justino un asesino de la tercera edad* filmearen arrakastaren ondoren, **La Cuadrillak** sinaturiko azken filmea. Oraingo honetan marrazain baten gorabeherak landu dituzte. Espainiaren kontrako penalti bat adierazi ondoren, Galiziako herri txiki batera ihes egin beharko du. **Carlos de Gabriel** eta **Ramon Barea**ekin.

▼▼ **San Juan** auzoko jaiak ospatuko dira astebukaeran. Bertako Jai Batzordeak antolaturik, igandean goizeko 10etan San Juango III. Autokross saria jokatuko da Fagorreko zelaian. Astelehenean, San Juan egunean, 11:30etan meza izango da eta ondoren *luncha* Iosu eta Iokin trikitilarien laguntzaz.

Deiak

▼ **Erakusketa.** *Bergara Hiria* argazki lehiaketako lanik onenak Kultur Etxean igandera arte ikusgai. Astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, ekainak 26, 18:30etan, Seminarioko bajuetan. Odol-emaitzei parte hartzeko eta herritarrei odol-emaitze egiteko deia egiten zaie.

▼ **Manu Muniategi**ren margo erakusketa Gasteizko CM2 erakusketa aretoan uztailearen 5era arte.

▼ **Aita Menni** ospitaleko arte erakusketan Juan Balentziagaren margo eta eskulturak, eta Arantza zu Aranzabalen zeramika lanak ikus daitezke San Juanak bitartean.

Ogia

▼ **Igandea 23:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 21:** Guallar/Español.
- ▼ **Larunbata 22:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Igandea 23:** Estella/Trizar.
- ▼ **Astelehena 24:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Astearte 25:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 26:** Puy/Morales.
- ▼ **Osteguna 27:** Guallar/Azkoaga.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Aranzadi Ikastola

25. urteurrena ospatzeko jaialdia gaur

Gaur, ostirala, arratsaldeko 7etatik aurrera, Aranzadi Ikastolaren XXV. urteurrena ospatzeko jaialdia izango da Udal Pelotalekuan. Bertan, Aranzadi Ikastolako 750 ikasle inguruk hartuko dute parte. Blanca Narbaiza irakasle eta jaialdiko antolatzailerikoen baten hitzetan, "2. mailatik UBIRA bitarteko ikasleek bertsoak, dantzak, musika piezak eta abar prestatu dute. Ostiralean, ekainaren 21ean, 25 urte betetzen dira Aranzadi Ikastola ofizialki eratu zenetik eta borregatik jaialdi hau antolatzeko asmoa sortu zen. Eta hemendik aurrera, ekainaren 21a, Ikastolaren eguna bezala finkatu nahi dugu".

Gaur arratsaldeko jaialdian programa honako hau izango da: bertsolarien agurrak emango dio jaialdiari hasiera, ondoren lehen eta 2. mailako artistek "Gora euskara" abestia eskeiniko dute, Aranzadiko dantza taldeak "Aurrekua eta Bertzijana" dantzatuko du, auzoetako txikiak "Zenbakien" dantza eskeiniko dute, ondoren 4. mailako "Elu honkwa" indiar dantza iragarri da eta jarraian Ai-



Aranzadi Ikastolako ikasleak protagonista izango dira gaur. ARTXIBOA

tzol Mujikaren kantaldia, 2 eta 3 urteko haurren "Aurpegia" abestia, 6. mailako aerobic erakustaldia, 7. mailako eta BBBko talde instrumentalarren "Mozarten trio bat", 4 eta 5 urtekoen "Kaletik mendira", 3. mailako "Atxia motxia" abesti herrikoia, trikitixa, 5. mailako abesbatzaren "Kukua-ren kanta" eta "Ai ai fan-

dangoa", 6., 7., 8. eta BBBko talde instrumentalarren "Go marchin in" eta "Bazkaldurikan" eta, bukatzeko, ezustekoa.

96-97 ikasturtean ospakizunak

Blanca Narbaizak adierazi digun bezala, "dato-
rren ikasturtean ekitaldi
gebiago antolatu nahi di-

tugu. Horretarako batzorde bat osatu dugu eta irailean basiko gara lanean. Oraingoan hama-bostaldi kulturala antolatu eta liburu bat argitatzeko asmoa daukagu baina, esan bezala, irailetik aurrera helduko diegu proiektu horiei".

Bien bitartean ondo pasatzeko aukera izango dute gaur Udal Pelotalekura hurbiltzen direnek. Aranzadi Ikastolak herritar guztiei jaialdira joateko gonbidapena luzatu nahi die. Sarrera doan izango da.

750 ikasle inguruk hartuko dute parte gaur Udal Pelotalekuan egingo den jaialdian

Industria hornikuntzak



Industriaren alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE • Telefonoa: 79 42 22 • Faxe: 76 47 89

Santa Kruz, 25 ARETXABALETA • Telefonoa: 77 11 75 • Faxe: 77 13 08

Engainurik ez!

Bergarako anbulatorioaren birmoldaketa dela eta, ondorengo hau aipatu nahi dugu:

Birmoldaketarako aurrekontuak ez du zerbitzuak gehitzea aurrakusten, hasieran hala agindu abizitzaigun ere langileoi. Adibidez, hasieran erradiologia zerbitzua aurrekontuan sartu zuten eta gero kendu egin zuten. Ondorioz, Deba Garaiko Eskualdeko Ospitalera (Arrasaten) joan behar erradiografia simple bat egiteko ere.

Beste horrenbeste geratzen da behar beharrekoak diren espezialitate batzuekin ere: oftalmologia, otorrinolarinologia edo ginekologia besteak beste. Ginekologiaren kasuan 6 hilabeteko itxaron-zerrendekin jarraitzen dugu eta, gainera, zerbitzu horretarako ezinbestekoa den ekograforik gabe; ekografoarekin egotekotan Eskualdeko Ospitalera joan behar.

Aipatutako obrek ez dute langile guztiendako toki edo kontsultarik ere aurrakusten, eta hainbat kasutan kontsulta konpartitu beharrean izango gara, bigarren solairuan toki huts asko dagoen bitartean.

Bukatzeko, lerro hauek aprobetxatuz, Bergarako herriari esan nahi diogu ez dezala engainurik onartu, ez dadila itxura aldaketa hutsarekin konformatu,

eta esijitu diezazkiola Osakidetzari Bergarako behar-beharrezkoak dituen osasun zerbitzuak.

IÑAKI AGIRREURRETA ETA LURDES AIRBE,
ANBULATEGIKO LANGILEAK

Tavex Udal Diputacion erderamania

1996ko ekainaren 13an, Bergarako Udaletxean El mundo azul de Tavex liburu-a aurkezten da Tavexek bultzatuta.

Horrelako aurkezpenetan gertatzen den bezala, Ilustrisimak, Txit eta abar han zeren mahaia osatzen. Zein izango neure harridura eta, presentazioa zabaltean, geure Txit alkateak, txistetan bezala (Ilega vasco y dice, pues en mi pueblo...) dena erdaraz hi!!! esan beharrik ere ez dago bere atzetik jardun zute-nak ere, tutik ere ez euskaraz.

Hau azaldu eta gero, nire galdera hau da: zein izango litzateke euren jarra-El mundo azul de Tavex izan beharrean "Bergaran 500 urte euskaraz" izango balitz? Duda barik dena euskaraz izan-go zela eta bertan euskararen garrantzia azpimarratuko zutela (euskara gora euskara behera). Uste dut argi dagoela Udalaren portaera ez dela batere ona euskararentzat. Bergaran ere euskaraz.

B. A. S.

Bolintxo okindegiari boikota

Bolintxo okindegiko nagusiek duela bi aste inguru J. V. M., berrogeita zazpi urteko bere langile finkoari, LAB sindikatuko afiliatua eta azken hauteskunde sindikaletan gure zerrendaburua izandakoari, kaleratzeko gutuna edo "carta de despido" delakoa eman zioten ekainaren 30etik aurrera kalean gelditzen dela esanez.

Tamainako barrabaskeria justifikatzeko, nagusiek gezurrezko argudioak erabili dituzte, horrelakoetan maiz gertatzen den bezala. Nagusiek orain arte J. V.k egiten zuen lana asesoria baten eta beste langile ebentual baten artean egingo dutela diote, ezin digutelako esan lana gutxitu egin denik, edo lantegiaren egoera ekonomikoa txarra denik; beraz, LAB sindikatotik argi eta garbi esan behar diegu Bolintxokoei ez gaudela prest hori inondik inora onartzeko, eta gogo biziz eta gure eskuetan daukagun tresna guztiakin borrokatuko dugula horrelako injustiziarik gauza ez dadin. Horregatik ingurutako dendari guztiei, zein herritar orori, mezu bat helarazi nahi diegu: Bolintxokoek bere jarrera aldatzen ez duten bitartean ogirik ez diezaiegula erosi, alegia.

LAB

Tiira biraka



Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak emanaldia eskeiniko du igandean 12:30etan Espoioan. Alfredo Glez. Chirlaqueren batutapean, *Santander* (Rosillo), *Las alegres comadres de Windsor* (Nikola), *Song and dances* (Purcell), *El duo de la africana* (Caballero) eta *San Martzial* (Miguel Glez. Bastida) joko dituzte.

Azoka Nagusia Elgetan

Ekainaren 22tik uztailaren 14ra bitartean Azoka Nagusiko jaiak ospatuko dira Elgetan. Bihar larunbata, hilak 22, arrantza lehiaketa jokatu da Asentzión goizeko 11etan; igandean goizeko 10etan mendi bizikleta ibilaldia eta ostegunerako, berriz, Haurren Eguna iragarri da. Besteak beste, ume parkea, play-back lehiaketa, buru-haundiak eta pelota partidua izango dira ostegunean Elgetan.

HILDAKOAK

Aste honetan ez dugu hildakoren berririk jaso.

JAIOTAKOAK

Ainhoa Irizar Frago
Ekainak 14



Liburuaren egileak eta Kirola Euskaraz programako ordezkariak asteazkeneko aurkezpenean.

Hainbat kiroleko euskarazko fitxa didaktikoak aurkeztu dira

Deba Garaiko euskara eta kirol zerbitzuek bultzatutako "Kirola Euskaraz" programaren barruan, beroketa, eskubaloia, saskibaloia eta rugbyari buruzko fitxa didaktikoekin egindako karpeta aurkeztu zen asteazken goizean Aretxabaletako Udaltelean. Alfredo Cobo eta Aitor Lasa eibartarrak izan dira liburuaren egileak. Beraiekin batera, Juantxo Villarreal Elgorriaga Bidasoako entrenatzailea, Arantxa Aurrekoetxea Herri administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaria eta

Iñaki Ugarteburu "Kirola euskaraz"eko ordezkaria izan ziren Aretxabaletan.

Karpeta lau zatitan banatua da: alde batetik beroketari buruzko fitxak ditu, beroketaren alde teorikoa eta praktikoa landuz. Bestalde, eskubaloia, rugby eta saskibaloia buruzko fitxetan, entrenamenduetarako saio praktikoko proposatzen dira, kirol hauen arautzea eta Euskal Herrian izan duten bilakaerarekin batera. Aurkezpen ekitaldian bildutakoek egindako lana goraiatu zuten, kirola egin eta euskara

bultzatzeko duen garrantzia azpimarratuz.

Karpeta, batez ere irakasle eta entrenatzaileei zuzenduta badago ere, edozeinentzat praktikoa izan daiteke. Ikastetxe eta kirol talde ezberdinei banatuko zaie eta liburu dendetan ere salgai jarriko da irailetik aurrera 1.500 pezetan. Bestalde, Euskara eta kirol zerbitzuek aurtengo urterako bi beka eman dituzte: atletismo eta futbolari buruzko fitxa didaktikoak sortzeko bat eta entrenatzaile titulazio berrietarako materiala sortzeko beste.

BENITO

- Zoruak leundu eta barnizatzea
- Parketa jartzea

PINKIAK

☎ 76 33 80 BERGARA

MUGICA

GOXOTEGIA



Artekale, 3
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

Jubilatuentzako egonaldiak Donostian

Diputazioak, jubilatuentzat, Donostian hiru eguneko egonaldiak antolatu ditu. Hurrengo irteerak ekainaren 24an, uztailearen 1ean, uztailearen 8an eta irailaren 2an izango dira. Prezioa 14.950 pezetakoa da eta eskaera egin nahi dutenek Eroski Bidaietara jo behar dute. Argibideak Jubilatuetan, 76 21 40 telefonoan.

Matrikula zabalik AEKn

AEKn matrikula egiteko epea ekainaren 28ra arte izango da zabalik. Bestalde guraso eta haurrentzat barnetegia antolatu da. Interesatuek 76 05 18 telefonora dei dezakete.

Orfeoiaren kontzertua ostiralean San Pedron

Bergarako Orfeoiak kontzertua eskeiniko du datorren ostiralean, hilak 28, gaueko 10etan San Pedro parrokian. Orfeoiarekin batera, Orfeoi Gazteak eta Haize taldeak hartuko dute parte. David Azurzak zuzenduta, Orfeoiak honako lan hauek abestuko ditu: *Cuando vayas a San Vicente* (Angel Barjaren egokitzapena), *Soule* (Javier Belloportu), *El mediodia* (Juan Jose Falcon), *Axuri beltza* (Javier Bustoren egokitzapena) eta *Ixil-ixilik* (Javier Bustoren egokitzapena). Haize taldearekin, berriz, *Margot, labourez les vignés* (J. Arcadelt-en egokitzapena) eta *Christmas cantata* (Daniel Pinkham) eskeiniko ditu Orfeoiak eta, azkenik, talde guztiek batera *Swing low, sweet chariot* eta *Down by the river side* (biak Gwyn Archen egokitzapenak).



Ikasleei telleriak izan duen garrantzia ezagutzera emango zaie.

Industrialdea egiteko Arregi telleria bota egingo da

Aurretik telleriaren inguruko ikerketa egingo da

Bergarako Udalak Labegaraie-tako Arregi telleria botatzeko akordioa hartu zuen Plenoan. Telleria bota baino lehen pabiloiari buruzko ikerketa egingo da Bergarako ondare industrialaren artean ezagutzera emateko. Hori egiteko, Industri Ondare eta Herriko Laneko Euskal Elkarteak kideak diren Marta Zabala eta Maite Ibañezekin harremanetan jarri da Udala eta aipatutako proiektua datorren urtean martxan jartzea espero da. Proiektuak 3 milioi t'erdi pezeta inguruko aurrekontua izango du eta ikerketa lana egiteko planiak, argazkia edo bideoa erabiliko dira. Horrez gain, mapa eta dokumentazioarekin lagundutako ibilbideak eta bisita didaktikoak presta-

tuko dira. Guztira, eskoletan 3.000 karpeta eta 75.000 folio banatuko dira.

Jaurlaritzako Kultura sailak Bergarako Industrialdea kokatuko den eremuan Labegararietako fatxada eta laminazio pabiloia eta Arregi telleriako eraikuntza mantentzea gomendatu zuen. Bergarako Udalak bi eraikuntzak mantentzea ezinezkoa zela erantzun zion Jaurlaritzari, lur industrial asko galtzen zelako eta horrek Industrialdearen biabilidatea ezinezkoa egingo lukeelako. Udalak bi eraikuntzen artean Labegararietako fatxada eta laminazio pabiloia mantentzea erabaki zuen. Hala ere, Udalak Arregi telleriaren garrantzia jasotzeko ikerketa egingo du.

Nafer, s.a.

Rekanbioak

San Lorenzo 25 BERGARA ☎ 76 16 98 - 76 39 59



Banatzaille ofiziala

1958. urteaz geroztik profesionalen zerbitzura!!



**MOTUL
300 V
COMPETICION**

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Herriko mendiak garbitzeko brigada osatzeko proiektua

Udalak Jaurlaritzari proiektu bat aurkeztu dio

Bergarako Udalak proiektu bat aurkeztu dio Eusko Jaurlaritzari herriko mendiak garbitzeko lituzkeen brigada bat osatzeko. Herri Batasunak Ongizate Zerbitzuan aurkeztutako proposamen hau onartzekotan, langabezian dauden herriko 8 lagunek lana izango lukete datozen hilabeteetan. Hain zuzen ere, Jaurlaritzak langabetuak denbora luzez kontratatzeko helburua duten honelako proiektuei dirulaguntzak ematen dizkie.

Aipatutako proiektuak hiru fase izango luketenei. Lehenbizi brigada osatuko zutenei beharrezko informazioa emango litzaieke, ondoren egin beharreko lanaren berri jasoko lukete eta, azkenik, lana burutu beharko lukete. Lehen kalkuluen ara-

bera, proiektuak 14 milioi pezetako aurrekontua izango luke. Eusko Jaurlaritzak aurrekontuaren %60a ordainduko luke eta gainontzeko %40a, berriz, Udalaren kontura joango litzateke.

Gaur egun Udalak 200 hektarea inguru ditu mendilurretan eta Herri Batasunak behin baino gehiagotan kritikatu izan du ez zaiela behar besteko errendimendu ekolojiko zein ekonomikoa ateratzen.

Jaurlaritzak uztailaren erdialderako bere erantzuna emango duela espero da. Jaurlaritzak proiektu honi bere oniritzia emanez gero, urri aldera emango lirateke lehen pausuak. Udalak, lehenbizi, brigadak non lan egingo lukeen aztertu beharko du.



Inguruko mendietan era honetako irudiak ikusi ahal izan dira. ARTXIBOA.

San Pedro jaiak Antzuolan

Astebukaera honetan San Pedro jaiak ospatuko dira Antzuolako Kalebarren auzoan. Gaur ostirala, gaueko 10 t'erdietan bertso afaria izango da eta ondoren bertso paper lehiaketako sariak banatuko dira. Bihar larunbata, 10:30etan haurrendako mairrazki lehiaketa, 12etan soinu-jole gazteek alaituriko kalejira eta

UzarragakoTxirrindulari Igoera, 4retan umeentzako jolasak, 6etan buruhaundiak, 8etan arbola jasotzea, gaueko 9etan auzo afaria, 10 t'erdietan erromeria, gauerdian sua eta orduerdi beranduago sagar dantza. Azkenik, igandean, 10etan diana txistulariekin, 11:30etan meza, ondoren salda banatu eta dantzarien saioa izango da, ordubatean txikiteoa, 6 t'erdietan asto lasterketa eta ordu berean erromeria.

San Martinetako tanborrada

Udaleko Kultur Zerbitzuak San Martinetako tanborradan parte hartu nahi duten 8 urtetik 12 urtera bitarteko gaztetxoei dei egiten die euren ikastetxean izena emateko. Entsausuak irailaren 4an hasiko dira eta tanborrariek Alzasu, Pertxa eta San Martineko martxak joko dituzte.

Elkarriren manifestazioa

"Euskal Herrian bidezko bake prozesu baterako" lemapean Elkarrik antolatu duen manifestazioa hilaren 29an egingo da Bilbon, 17:30etan, La Casillan. Bertara joateko autobusetarako izena Kortazar eta Zuhaziti tabernetan eman daiteke.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

BOLUN

GANTXEGI mertzeria

LENTZERIA • BAINU JANTZIETAN AUKERA ZABALA

Bolu, 28 ☎ 76 00 79

Ongizatea

Udarako erremedioak

- Orain, udan, txindurriak ugaltu egiten dira. Zer egin daiteke etxean ez izateko?

- Egia da beroarekin txindurriak ugaltu egiten direla. Gertatzen da berogatik gauza goxoak gehiago usaintzen direla eta txindurriek horietara jotzen dute. Gainera oso molestoak dira jan artetik ibiltzen direlako. Lehenbizi nondik datozen jakin behar dugu eta ondoren ozpina (sagardoarena ala sagarrarena) botatzea da onena. Era berean, menta, lavanda edo espliegoa botatzea primeran etortzen da txindurrik ez agertzeko.

Bestalde, txindurriek pikatzekotan (haundiagoak diren txindurrien kasuan adibidez) bikarbonato eta urarekin garbitu behar da eta limoi ura eman.


- Sukaldea marmolezkoa edo egurrezko izateak adibidez izaten du eraginik txindurriak agertzeko?

- Ez dauka zerikusirik. Txindurriak neguan ez dira agertzen baina udan negu parterako erreserbak egin behar izaten di-

tuzte eta horregatik sekulako txindurri iladak ikusten dira gari aleak edo azukrea eramaten. Etxean behintzat gauza goxoetara jotzen dute: azukrea, ezta... eta horrelakoetara.

Eta azukre potera sartzen badira adibidez, potea ondo garbitzea komeni da, txindurriak zikinean ibiltzen direlako.

- Sitsak ere udan gehiago agertzen dira?



ALBERTO ALTUBE
(Dietista)

- Ez, sitsak urte guztian izaten dira. Sitsak ez izateko tratamendu egoki bat dago: egurrean linaza olio ematea eta horrez aparte beste erremedio batzuk badaude: alkanforreko bola usaintsuak eta horrelakoak.

Sitsak agertzen direnean zuloak estaltzeko

"Txindurriak nondik datozen ikusi eta onena ozpina (sagarrarena) botatzea da"



Txindurriek janari goxoetara jotzen dute.

argizaria ematea da onena. Baina argi bili beharra dago sitsak ez agertzeko, behin sartu eta gero kalte haundiak egiten baitituzte.

- Bestalde udan eltxoekin eta erleekin kontuz ibili beharra dago...

- Eltxoen ziztada bat izatekotan hazka ez egitea da onena bestela infekzioa sortzeko arriskua dago eta. Ziztada jaso dugun lekuan izotza edo limoia ematea gomendatzen da.

Erleen ziztadekin berdina egin daiteke. Ahal bada behintzat eztena atera behar da aurretik eta ondoren izotza edo limoia eman. Era berean berakatzatza maspildu eta ematea ere ondo dator, bustina ere bai edo zainbelarra (*Ilanten*) freskoa maspilduta emateak ere ona da.

- Azkenik, zer egin dezakegu etxean eltxoak edo euliak ez agertzeko?

- Leihoetan albahaka freskoa edo alegriak lorapoteetan jarri. Euliendako ere *iltze* espezia asko erabiltzen da. Limoia bertan erdibitu eta bertan espezia horiek sartzen dira. Eta azkenaldian plastikozko ur boltsa transparente bat urez beteta erabiltzen hasi da. Badirudi eguzkiaren erreflexuak euliak uxatzen dituela.

A mets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI


Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Ehunak 100 kolore

Bergarako ehungintza egoera kezkagarrian



Ehungintzaren ardatza izan da eta oraindik ere bada Bergara. San Antonioko Algodonerako aspaldiko argazkia.

Une honetan Bergaran 520 langile inguru dabil-tza ehungintzan lanean. Lehenengo enpresa, Algodonera San Antonio, sortu zenetik, ehungintzaren inguruko lantegi ugari izan dira: Bergarako urdina edo mahoia izan da urteetan nabarmendu dena; azken urteotan, berriz, denim edo bakeroa da nagusi. Kolore ugari ezagutu dituen langintzak azkenaldian une ilunak bizi ditu.

XV. mendean ere bazen ehun langintzarik Bergaran Las Ordenanzas de los Hazedores de Paños de Vergaran irakur daitekeen. Hala ere, XIX. mendean etorri zen lehen industria. 1846an, Bergarak 4.500 biztanle zituenean, Silva eta Frois baionarrek eta Jose Julian Blanc Ber-

garan bizi zen aragoiar-rrak hariak eta ehunak egiten hasia erabaki zuten. Horrela jaio zen Algodonera de San Antonio S.A., orduan Frois, Silva, Blanc y Cia..

Algodonera eta emakumea

Indiatik ekarritako in-


iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15



Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

digo koloreko ehuna, Bergarako urdina, zen Algodoneraren ezaugarri. Ehun honetaz gain, Algodonerak izan du beste ezaugarri bat ere: emakumeak. Horretan aintzindari Blanc-en emaztea izan zen, Martina Maiz. Frois-ek eta Silvak enpresa laga zutenean Blanc izan zen zuzendari, baina ez zen bakarrik aritu, Martina izan zuen laguntzaile. Blanc hil zenean alarguna arduratu zen zuzendaritzaz. Enpresari eraginkorra izateaz gain, lantegia salduta egon ondoren berreskuratu, eta bera hil ondoren ez ixtea ziurtatu zuen. Estatuko emakume enpresarien aintzindari izan zen. Langileen artean ere emakumeak ziren ugarien: % 80-85.

Denim edo bakeroa

Urteak pasa eta modak aldatu ahala, mahoia- ren eskaria jeitsiaz joan zen eta denima (bakeroa) sartzen hasi zen. 1974an Algodonerak denima produzitzen zuen, eta markarik ezagunenen hornitzaile zen. Hauen artean sonatuena Levi's Strauss. Horrela hasi zen enpresaren bereizgarri berria: denima.

1975ean Algodonerak, Lasagabasterrek eta Narvaizak Tavesa sortu zuten, jarraian tintatzeko instalazio modernoa zuela. Gaur egun Algodone-

Hemengo lantegiak Latinoamerikako merkatuaren ia hornitzaile bakar bihurtu ziren, ondorioz, gerra zibilera arte produkzioa ikaragarri zabaldu zen

rak eta Tavesak, Valentziako eta Marruekoeko planta banarekin TAVEX taldea osatzen dute. Europan liderra da, 50 milioi metro baino gehiago saltzen du urtean; lurra- ren inguruan bufanda zabal bat jartzeko adina denim.

Bergarako bakeroen zale handienak Iparrameriketarrak dira, salmentarik handienak han baitituzte; gero Asian, eta hirugarren postuan Europa dago. Gaur egun TAVEX-eko akziodun nagusia Westdeutsche Landesbank AG banku alemaniarra da, eta akziodun pribatuak ere baditu.

Bergara ehungintzaren puntan

Algodonera San Antonio aintzindari izan zen, izan ere, bere ondoren beste lantegi batzuk sortu baitziren, Bergara metala eta ehungintza ardatz zituela Gipuzkoako industrializazioan herri garrantzitsu bihurtuz. Horrela, 1918 urte inguruan, esaterako, enpresa hauek zeuden: Alcorta y Cia (Mekolalden), Aranzabal Mendiola y Cia (San Lorentzon), Tintoreria de Jose Belamendia (San Lorentzon), Saizar y Cia

(Zurraderon), Jose Zabala Iraeta (Ozaetan) eta Industrial Eguzkialde (Gaztelun). Hauen aurretik, oster, datorren urtean, 1997an, 100 urte beteko dituen enpresa sortu zen: Movilla, Fernandez y Compañía, baina Gregorio Fernandez y sobrino izena zuela.


Movillak 1997an 100 urte

Gaur egun ere, bere historia guztian bezala, familiako enpresa izaten jarraitzen du Movillak. Algodozko ehunak, nahas-

ketak, kolorekoak egin arren, batez ere lanerako jantziak egiteko ehunak egiten dituzte. 1918an 230/300 bat langile zituen, eta orain 23 ditu.

Muguerza, Lasagabaster, Oregi

1914tik aurrera Sobrinos de Hilaria Muguerza izena izan zuen Masterreka bukaeran eta Egino Mallea jauregiaren ondoren zegoen lantegiak. Hasi- ran 16 langile izan arren, 1920rako 84 zituen. Egiten zituzten lanek aurretik aipatu ditugunek



Narvaiza ordainketa-etenduran dago, ixteko arrisku handia duela.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO
9 ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

LARREA

TABERNA


Kale Barren, 17
ANTZUOLA

baino kalitate eskasagoa zuten. Urte berean, 1914-an, aurretik tintategia zen Lasagabasterrek ehungintza jarri zuen. Lasagabaster ere, hortaz, ehungintzako ia enpresari guztiak bezala hasi zen, lehenengo tintategia jarritz.

Unzurrunzaga ere hala hasi zen. Denborarekin Unzurrunzaga Oregirekin elkartu, eta Oregi, Unzurrunzaga y Cia osatu zuten.

Gerra osteko lantegiak

Lehen mundu-gerraren osteko belaunaldia izan zen dinamikoena, nahiz eta gerra tarteko, lehengaien horniduran arazoak izan. Enklabe europarren suntsiketak Bergarari eta toki neutralei lan egiteko aukera ezin hobea eskaini zien. Hemengo lantegiak Latinoamerikako merkatuaren ia hornitzaile bakar bihurtu ziren, ondorioz, eta, gerra zibila iritsi arte, produzioa ikaragarri zabaldu zen. Algodoiaren belaunaldi berri hori Bergarako industriatik zetozen enpresariak osatzen zuten. Horretan lehen eredu Claudio de Arteché dugu. Echaide y Cia.n hasi zen lanean, eta azkenean bere enpresa, Arteché Hnos. sortu zuen Osintxun. Arturo Narvaiza ere nabarmentzekoa da: Movilla y Cia.n ibilia zen, eta urte batzuk geroago Mekolal-



Lasagabaster izan da Bergaran itxi den azken ehungintza lantegia.

deko Alcorta y Cia erosteko aukera izan zuen. Hala hasi zen gaur egun Arturo Narvaiza e hijos izena duen enpresa.

Arturo Narvaiza e hijos

1920an tintategia zen. Ehungintzan hasi zirenean baserritarrentzako erropak egiten zituzten. 1940an mahoiari heldu zioten, eta 62an bakeroari eta koloreko ehunak. Sasoi batean produziorik handiena bakeroa bazu-

ten ere, orain, kolorea da nagusi, %70; bakeroa jaitsi egin da, %30 egiten dute. 1973an TAVESA osatu zuen Lasagabaster eta Narvaizarekin batera, baina gaur egun ez du inolako partizipaziorik. 78an Antzuolan zuen Hilaras de Vergara Gasteizera eraman zuen. Gasteizkoa eta Bergarakoa juridikoki bi enpresa dira, baina jabea bera da. Gaur egun 128 langile ditu, 4 milioi t'ardi-5 milioi metro ehun egiteari eutsi nahi dio, eta kinka larria

bizi duen lantegia da.


Aitatu ditugun enpresa horietaz gain beste asko izan dira Bergaran: Pedro Otazua, Felipe Ezpeleta, Hijos de Miguel Barbara... baina denborarekin denak ixten joan dira. Gaur egun geratzen direnak Algodonera, Tavesa, Agirrezabal (oihalak egiten ditu), Movilla eta Narvaiza dira, eta dagoeneko ehunaren ehun urteak kontaktzen hasiak gara: aurten Algodoneraren 150. urteurrena, datorren urtean Movillaren 100.a...

Garai batean asko izan baziren ere, egun ehungintza lantegi hauek geratzen dira: Tavesa, Algodonera, Movilla, Narvaiza eta Agirrezabal

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



Ari ✓ an Bodega eta Hornikuntzak, S.L.

Ardoak

López Ojeda

Bodegak

San Martzialetoarako ARDOA eta GARAGARDOA

Enpresariak diote

Jose Antonio Narbaiza

Hijos de Arturo de Narvaizako zuzendari teknikoa eta akzionisten batzorde orokorreko presidentek bere enpresaren nondik-norakoak kontatu edizkigu

- Zein arazo duzue?

- Azken 20 urteetan inbertsio fuerteak egin ditugu, beharbada gure posibilitateen gainetik, eta gure akatsetako bat izan da. Produktibitatea teknologian, instalazioetan... oinarritu dugu. Baina era berean kostu pertsonala asko igo da; soldata kostua ehungintzako norma guztietatik irtezen da. Merkatua, kalitatea, izena... baditugu, kostua da arazoa. Bost urte daramagu eten barik dirua galtzen, eta horrela ezin da jarraitu.

- Eta zer proposatzen duzue?

- Batetik, eszedentea dugunez, pertsonala murriztea. Langile kopurua jaitea ez da oraingo kontua, baina berandu aurre egin nahi izan dugu, orain ez dugulako indemnitzazioak ordaintzeko dirurik. 38 langile joango dira kalera: 20 Gasteizen (Hilaturas de Vergara) eta 18 hemen. 4.500.000 kobratuko dute, eta errekurtsu ekonomikoak ditugun heinean joango dira kalera. Bestetik, soldata, batzate beste, %10 jeitea eta lanorduak %10 igotzea planteatu dugu. Langilearentzat sa-

krifizio handia denez, trukean enpresaren akzioak eskaintzen ditugu, eta 2 urtetan 300 milioiko inbertsioa egitea.

- Nondik aterako duzue 300 milioi?

- Dena hipotekatuta egon arren, Gasteizko lur sailak edo eraikinak saldaitezke, leku onean, industrialdean daudelako.

- Inbertsiorik ez egitea salatzen dizute.

-Gauza bat da inbertsioa, beste bat kapital-zabalkuntza. Sindikatuek inbertsioa esaten dutenean kapital-zabalkuntzaz ari dira. Eta egia da Narvaizan ez dela kapital-zabalkuntzarik egin, iaz 300 milioikoa (150 milioi akzionistek jarri zuten, 150 arrisku kapitala zen). Eta 300 milioi urtean 200 milioiko galera duen enpresarentzat ez da asko, bizi duguna ikusi besterik ez dago. Gainera, enpresa honetan azken 15 urteetan, ni akzionisten batzordeko presidente naizenetik, inoiz ez da dibidendu banaketarik izan, are gehiago, genuena, eta ez genuena bankoari eskatuta inbertitu dugu.

- Eternotex eta Lee dira zuen erosleak?

- %20 baino ez. Familiako batzuk, hau da, Narvaizako sozio batzuk, ez denak, Lee eta Eternotex -lehengo Rok- marken akzionista dira. Behar zuten guztia guri erosten ziguten, eta, gainera, merkatuko prezioa baino gehiago ordaintzen ziguten. Etengabeko kapital-zabalkuntza izan da, inon ageri ez dena: guretzat laguntza ekono-

miko ikaragarria izan da.

- Konponbidea bilatzeko zerbait egin duzue?

- Finantziarioak aurkitzen eta aldatzen saiatu gara, balantze egitura hobetzen... ahal den guztia.

- Tavex-ek Narvaiza erostea proposatu da.

- Oraintxe bertan minutu erdi galdu barik salduko genioke edonori. Baina inork ez du erosi nahi.

- Konponbiderik?

- Kosto soziala modu arrazoitsura egokituz (ez Belgikako edo Estatukoak bezalako soldatekin, altuagoekin baizik). Enpresak ez luke dirurik irabaziko, baina teknologia berritzeko eta lanpostuei eusteko adina aterako litzateke.

- Langileen esku dago etorkizuna?

- Bai. Euren erabakiko dute. Nik uste hobe izango dela lan barik gertatzea baino gutxiago irabaztea. Langileak gertatzen ari den guztia dakite, erabateko informazioa dute, eta euren erabakitzen dena gertatuko da.

Enrique Garran

1999.era arte 7.000 milioi pezeta inbertituko direla eta aurtan, iazko irabaziak (2.495 milioi) %15-20 gehitzeko asmoa dutela esan digu Enrique Garranek, Tavex-eko presidentek.

- Ze inbertsio egingo du Tavex-Algodone-

rak?

- 7.000 milioi: 4.000 milioi Marruekoson, beste 2.000 milioi Valentzian, eta 1.000 milioi Bergara, Marruekos eta Valentzian. Bestalde, beste 1.800 milioi inbertituko dira Bergaran, langileekin akordio batera heltzen bagara.

- Ze alde dago enpresaren eta langileen artean Bergaran?

- Bergarakoak mundu-bakero lantegietan kosturik altuena du, Ipar Amerikakoak dolea. Horrela ezinezkoa da konpetitzea, beraz, itxi nahi ezean, zerbait egin beharra dugu. Egoera honetan ezinezkoa da beharrezkoak zaizkigun inbertsioak egitea. Bestalde, Tavex-ek Bergarako lantegia mantendu egin nahi du, kostu altua izan arren, produktibitate altua duelako, kalitate handiko produktuak egiten dituelako...

- Zein da enpresaren planteamendua?

- Datozen bost urteetan ez daitezela haunditu Bergarako eta Valentziako langileen soldaten arteko aldeak (han 3 milioi pezetako soldata gordina dute). Bestalde, sartzen diren berriek Valentziako langileek kobratzen dutena irabaz dezatela. 2002. urterako, Bergarako eta Valentziako kostuak parean egongo lirarteke eta egin beharreko inbertsioak eginda eta langileen laguntzarekin, produktutako metro teleren kostua, batzate beste, herrialde garatuen parean ibiliko ginateke.

Eta sindikatuek?

95eko urrian TAVEXeko zuzendaritzak langileei 95-99rako proposamen bat egin zien. Bertan, besteak beste, puntu hauek aipatzen dira: soldatak bere horretan mantentzea, kontratatu berriek Valentziako langileen pareko soldatak izatea (hemengoek 4,5 milioi pezetako kostua dute, hangoak 3 milioi) eta lanorduek 1980ra igotzea. Sindikatuek ez zuten onartu, eta handik gutxira zuzendaritzak erretiratu egin zuen proposamena. Une honetan mahai negoziatzailea hautsita dago.

CCOO eta UGT negoziatzeko prest

UGTren proposamena negoziatu eta akordiora iristea da. *"Mahaian jarri eta berba egin behar da. Hartutako akordioak langile guztiei aurkeztu eta, botu sekretu bidez, demokratikoki eta errespetoz erabakitzea. Komunikabideak, sindikatuak... denak alde batera laga eta langile guztiek erabaki behar dute zer nahi duten"*. CCOO parametro batzuen arabera negoziatzeko prest dago: *"inbertsioak hemen egitea proposatzen dugu, nahikoa ez izan arren, Bergarako ehungintza ziurtatzeko modua baita. Badakigu horrek esan nahi duela kontratatu berriek lehengo langileek baino soldata murriztagoa izatea, baina borren truke hau eskatzen dugu: ebentualak fijo hartzea, kontratatu berriak*

ETT bidez ez hartzea, kontratu zaborrik ez egitea, eta urtebeteko epean fijo egitea".

ELA eta LAB

ELA eta LAB, berriz, TAVEXen zuzendaritzaren jarrera aldatzen ez den bitartean ez daude negoziatzeko prest. *"Zuzendaritzak sartuko diren langile berriak Valentziako soldata berdinekin sartzea, eta oraingo langileen soldatei bere horretan eustea nahi du. Guk ez dugu onartzen lan berbera egin behar duten langileek, soldatan horrelako alderik izatea; zuzendaritzak puntu hau negoziatzeko jotzen du, eta mahaia apurtuta dago"*.

Apirilean egindako 4 eguneko grebaren ostean greba iraunkorra ere proposatu zuten. *"Ez zen aurrera irten, baina ego-*

era ez da aldatu, eta beste era bateko borroka-rekin jarraituko dugu".

LABek, besteak beste, ondorengo eskatzen du: kontratu berriak ETT bidez ez egitea, urte bete ondoren finkoak izatea, eta hasieran Valentziako langileen pareko soldata izan arren, 6 urteren buruan Bergarako plantetakoek duten soldata berbera edukitzea. *"Valentziari eta Marruekosin 7.000 milioi inbertitu behar dute, eta hemen 1.800 milioi inbertitzeko txantaila egiten digute, esanez langile berriak orain plantillan daudenen erdia kobratuko dutela"*.

ELA bat dator LABekin: *"Langileen baldintzak duela 20 urte bezala laga nahi dira. Hau da, enpresaren arriskuak abalik eta gebien gutxitu, eta gestioak, txarra edo ona izan, akziodunei kalterik ez sortzea"*.

Bestalde, Marruekosin eta Valentzian egin dira inbertsioak; Bergaran instalazioen mantentzean ere ez da inbertitu. Konponbidea inbertsio plan serio batean datza".

Narvaizan larri

Narvaizaren egoera oso larria da, ordainketa-etenduran dago, eta akordio batera iritsi ezean kiebra egiteko arriskua duelako. Narvaizan sindikatuek iritzi berdintsuak dituzte, eta enpresa komiteak funtzionatzen du. Azkenengo asanbladan 18 lagun kalera irtetzearekin batera, soldatak %10 jeisteke eta lanorduek %10 gehitzeke, langileentzako plan egokiagoa egitea erabaki zen. Baina oraingoz ezer ez dago erabakita. *"Langileek gehiago produzitu arren, enpresak inbertitzen ez badu, ezer ez da lortuko"*.



"Inbertsiorik egin ezean alperrik da langileari soldata jeistea eta lanorduek gehitzea".

San Juanetan sumetak egiteko ohiturarik badaukazue?



Aitor Marauri

Bai, gaur (asteartean) hasi behar gara kartoiak eta horrelakoak biltzen. 10 bat lagun ibiltzen gara eta parkearen ondoan egingo dugu sumeta.



Amaia Iturrospe

Ez, ez gara animatu oraingoz, beharbada mutilen gauza delako. Ez dugu sekula sumetarik egin baina ikustera joaten gara.



Mikel Leturia

Bai, asko gustatzen zaigu gainera. Oso ondo dago eta orain ari gara aurtengo sumeta gertatzen. Gustora egiten dugu eta ibaiaren ondoan izango da gurea.



Ariane Arruti

Ez, ez dugu behin ere egin. Ikustera bai, koadrilakoak joaten gara baina oraingoz ez dugu fogatarik egin.



Karmelo Gallastegi

Bai, zazpi bat lagun ibiltzen gara eta normalean kalean batzen ditugu periodiku eta kartoiak. Aurten Bolun egingo dugu.



Jone Barrutia

Ez, suak beldurra ematen dit... Igual burura zerbait jausi eta. Ikustera joaten naiz baina urrinetik...


Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

LENIZ ALUMINIOAK


Bi orriko atea

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.


Bi orriko leihoa



~~109.000 pta.~~
101.000 pta.



Leihoen neurria
Lzure beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...



~~84.000 pta.~~
76.000 pta.

Orri bateko leihoa: 54.000 ppta.!!!

Orri bateko atea: 73.000 ppta.!!!

Oharra: Prezio hauetan instalazio osoa sartzen da.



Ixtear

Uda iritsi da. Urtaro hau prentsarentzat ez da onena, dagoneko nabarituko zenuten egunkariak moteltzen eta flakutzen hasi direla. Salmentak eta iragarkien kopuruak jeisten direnez, sasoi honetan hiltzen dira ixtear dauden egunkari gehienak. Azkena Madrilgo "Ya" izan da. Bigarren errepublikan sortu zuen Angel Herrera Oriak. Lehen alea 1935ko urtarrilaren 14an palazaratu zuen egunkari katoliko eta kontserbadore honek -Elizaren komunikabide zen-. Berrogei urte geroago, 1975ean, Madrilan gehien saltzen zen egunkaria zen 177.000 alerekin. Sasoi hartan, garai berrien ondorioz, aldaketak egon ziren bai zuzendaritzan baita iritzi joeran ere, baina pixkanaka irakurleak galduaz joan zen.

1980an Edicak, Gotzaien Konferentziakoa, produktoa berriztu zuen eta enpresari batzuek 1987an Edicaren %51a erosi zuten. 1988an Comecosak, El Diario Vasco kaleratzen duen taldeak gehiengo hori erosi eta Larrea, El Diario Vascoren zuzendaria, Madrilera bidali zuen "Ya"n egunkari erreionalen ereduia ezarri nahian. 1991ko uztaillean, Antonio Asensio Antena 3eko presidentea eta Mario Conde bankero ospetsua sartu ziren, baina 40.000 bakarrik gehitu zuen. 1992ko abenduan enpresa mexikar batek hartu eta "suspension de pagos" delakoa iritsi zen.

1993ko udatik langileek bizirik mantendu dute, zuzendariak eta langileek berdin kobratuz 100.000 pezeta hilero. Azken apostua Aurelio Delgado Diario de Avilaren jabeak egin zuen 1994an. Madrilgo Komunitateak bere laguntza eskaini eta oniritzia eman zuen 1.200 milioiko abalaz aprobatur, baina jabeak beharrezko kapitala jartzeko baldintzarekin. Hori ez da gertatu eta "Ya" hil egin da. Komunikabide bat enpresa "estrategiko" bat denez, oso zaila da ixtea. Beste sektoreetan bezala laguntza publikoak ezinbestekoak dira. Komunikabideen biziraupena erabaki politikoa da. Gure inguruan badago adibiderik. Penagarria da, ahots bat gutxiago, eta ez da azkena izango.

German LARRAÑAGA



Hotzez dagoenari...

PPko gobernua hartu berri dituen lehendabiziko neurri ekonomikoek Ongizate Estatuaren argaltzearen aldekoak dirudite; lehendik genituen susmo guztiak baieztatuz.

(Ultra)liberalen ereduaren omen dago lekurik giza ekonomia-arentzat. Aldiz, gizartea merkatuaren gorabeherenpean jartzen dute -ikusten ez den eskua arazoak konponduko dituelako itxaropen txotxoloarekin-.

Oraintsu Bundesbakeko lehendakariak aldarrikatu zuen bezala, munduko gobernuen zeregin eta erabakiak merkatuen egoerari moldatu beharko litrateke.

Gauzak horrela izanik, indarrean dagoen dogma ekonomikoak agintzen du Maastrichteko akordioari eman behar zaiola lehenetasuna.

Erabaki guztiak norabide horretan egokituko dira: defizita gutxitu, inflazioari eutsi, eta abar. Zertarako? Gizarte edota hiritarren arazoak konpontzeko? Azalez bai, baina sakonean eredu liberalak babesten duen Ongizate Estatuaren desagerpena bul-tzatzen ari da.

Azken finean, giza esparrua politikatik urruntzen ari da azken hau merkatupean sartzen den heinean. Erabaki politikoak merkatuaren beharrei egokitzen dira eta, horrela, galtzaile gertatzen dena gizartea da.

Zorionez, horrelako ereduak ez dauka etorkizun luzerik. Pentsa dezagun, beraz, nola irten estrosada horretatik ez tandari itxoin gabe.

Iñigo URRUTIA



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren


Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

■ **Kanpoko igerilekuak zabalik**



Ostiralean zabaldu ziren **Agorrosingo Udal Igerilekuak**

eta, egunotako eguraldi ona aprobetxatuz, jende asko hurbildu da bertara eguzkia hartu eta bainu

bat hartzeko asmoz. Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, 1.377 abonatu dira aurten, horietatik gehienak 18 urtetik gorakoak (%92) eta gizonezkoak (%67). Erabiltzaileak, berriz, 3.257 lagun dira, %70 18 urtetik gorakoak. Erabiltzaileen kasuan ia ez dago alderik gizon

eta emakumeen artean: 1.642 emakumeak dira eta gainontzeko 1.615ak gizonezkoak. Kanpoko igerilekuak, irailaren erdialdera arte, goizeko 10etatik gaueko 9etara izango dira zabalik eta Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurten ez da gorrerik alokatuko. Bestalde, uda garaian, **Ivan Ramirez, Alex Familiar, Silvia Marco, Onintza Pescador** eta **Jose Luis Silva** (argazkian ezkerretik eskumara) zango dira kontrol, zaintze eta garbitasun lanetan.



■ **Denboraldi bikaina**

Bergara K.E.ko jubencil mailako nesken saskibaloit taldeak

denboraldi bikaina burutu du. **Iker Barberok** eta **David Urbinak** entrenatzen dituzten neskek Gipuzkoako ligan laugarren postuan geratu dira eta Labegaraieta edo Mariaren Lagundiko kantxara hurbildu direnek euren jokoarekin gozatzeko aukera izan dute. Hurrengo denboraldian jokalari gehienak senior mailara pasako dira eta baliteke senior taldea osatzea. Ea hori lortzeko neska gehiago animatzen diren...

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**ESKUEN BIDEZKO
SENDAGILEA**

Reiki maisua - Naturista -

Era guztietako gaisotasunen tratamendua:
gaisotasun kronikoak, nerbioetakook,
emozionalak, degeneratiboak...

KONTSULTA: Aranerreka, 24 1. ☎ 76 56 66



■ Ikasturteari agur

Musika Eskolako ikasleek kontzertu sorta bat eskeini dute aste honetan Zabalotegiko aretoan. Bertatik, besteak beste, kantu, akordeoi, piano, oboe, flauta, kitarra, bibolin, saxofoi, txistu, tronpa, tronpeta eta tronboi ikasleak pasa dira eta guztiek ere maila oso ona erakutsi dute Zabalotegin bildutako jendearen aurrean. Guztira, **100 bat ikaslek** (gehienak 9 urtetik 16 urtera bitartekoak) hartu dute parte egindako lau emanaldietan. Musika Eskolako ikasleek gaur amaitu den kurtsoan lan bikaina egin dutela azaldu dute berriz ere... Orain oporrak ondo pasatzera!!



Zertan dihardute ba?



Idoia Bollar

27 urteko bergararra kale animazioa egiten duen Donostiako Hankagorri taldearekin Piratak izeneko kale animazioa eskainiz dabil. Idoiak panpinak egiten dituen pertsonaia bati ematen dio bizitza; tripulazioko lotia da, eta 5 urteko hurrei ipuinak kontatzeaz gain, eurekin jolasetan parte hartzen du. Ekainean hasi eta iraila bitartean herriz herri ibiliko dira Euskal Herriko haurrak animatuz. Idoia Oñatiko natur eskolan hurrekin ibiltzen da eta esperientzia hori baliagarri izan zaio.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**LONBIDE
OINETAKOAK**




Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Ramon Agirrezabal

Bergara, Arrasate eta Aloña Mendiko futbol taldeetan jokatu du Ramon Agirrezabalek (26 urte). Administrarritza ikasketak burutu zituen Miguel Altuna Institutuan eta gaur egun Udal Liburutegiko laguntzailea dugu.

- Futboleko jokatzearen gauzarik onena?
- Kirola egitea eta egindako lagunak.
- **Eta txarrena?**
- Eskatzen duen sakrifizioa.
- **Izan duzun entrenatzailearik onena?**
- Zeziaga, Arrasaten.
- **Eta aurrean tokatu zaizun jokalaririk onena?**
- Mitxel Badiola, Urolakoa.
- **Talderik gogorrena, zein?**
- Zalla.
- **Ribalidade gehien, zeinekin?**
- Arrasaterekin.
- **Futbol zelairik onena?**
- Mintxeta eta Garmendipe.
- **Eta txarrena?**
- Zornotzakoa.
- **Golik onena nori?**
- Elgoibarri aurtin, falta bat jaurtiz.
- **Zenbat aldiz kanporatu zaituzte?**
- Bizpahiru aldiz (barrezka).



"Azterketa garaian liburutegira ikastera etortzen da jendea, bestela denbora pasatzera. Lo egitea, kirola praktikatzea eta lagunekin irtetzea gustatzen zait. Holandak edo Espainiak irabaziko dute Eurokopa"

- **Denboraldirik onena, noiz?**
- Arrasatera joan baino lehen, 92an, Aloñarekin.
- **Bergarara etortzeko asmorik?**
- Oraingo ez.
- **Oroitzapen on bat?**
- Familiko ezkontzak eta Leire ezagutu nuen eguna.
- **Eta txar bat?**
- Nire amaren heriotza.
- **Liburutegira egotera ala ikastera dator jendea?**
- Azterketa garaian ikastera, bestela jende asko denbora pasatzera.
- **Ikasleak zintzo egoten dira?**
- Bai, baina denetik dago...
- **Zarataka hasten direnean?**
- Bakarrik ez daudela esaten diet.
- **Gaztetxoekin ondo konpontzen zara?**
- Batzuetan txiloren bat bota behar izaten dut...
- **Liburu bat?**
- "Kutsidazu bidea, Ixabel" eta "Los pilares de la tierra".
- **Idazle bat?**
- Bi, Ken Follet eta Rosamunde Pilcher.
- **Zer egingo duzu oporretan?**
- Huelva aldera joan.
- **Plaiarik gustokoena?**
- Zarauzkoa.
- **Jairik onenak?**
- San Martzialak.
- **Hobby bat?**
- Lo egin, kirola eta lagunekin irtetzea.
- **Nork irabaziko du Eurokopa?**
- Holandak edo Espainiak.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

MIZPILDI 3, 1. EZKERRA. BERGARA

IKASTARO TRINKOAK
Uztailaren 1etik 19ra

Izen-ematea: Ekainaren 28ra arte.

Informazio gehiago: 76 30 55

Ordutegia: 10:00-12:00 eta 17:00-19:00



TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bergaran.
☎ 76 39 64.

Pisua salgai Osintxun.
Erdi amueblatuta, argitsua.
☎ 76 17 27/55 98 (gauetz).

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 09 37.

Pisua salgai Bidekurutzeta-
lan. ☎ 76 43 22/56 07.

Ganbara bat behar dut
bizitzeko. ☎ 76 39 65.

Pisua salgai Bolun. 100
m2. ☎ 76 22 72.

Pisua salgai Antzuolan.
☎ 76 25 32.

Estudioa alokatzen dut
Benidormen. ☎ 76 23 43.

Berriztutako **ganbara** San
Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

Garajea salgai San Loren-
tzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. ☎ 76 47 67.

Pisua salgai Frontoian.
160 m2. ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Frontoian.
☎ 76 51 73.

Garajea salgai Zurrade-
ron. ☎ 76 02 89.

Pisua salgai Mugertzan.
☎ 76 53 79.

DENETARIK

Kotxe silla salgai.
☎ 76 58 84.

Denda-remolkea salgai.
☎ 76 37 82.

Otsein labadora salgai.
☎ 908 67 09 10 (Markos).

Zaldi bat konpartitu nahi
duzu? ☎ 76 30 01 (Rene).

Imar denda-remolkea sal-
gai. ☎ 76 58 62 (gauetz).

Kotxe silla bat erosiko
nuke. ☎ 76 40 97.

Umearen urrezko katea
eta medalla galdu ditut.
☎ 76 29 21/76 08 89.

Trialsineko Monty bizi-
kleta salgai. Egoera onean.
☎ 76 56 13.

Graduatutako betaurre-
koak galdu zaizkit (fundare-
kin). ☎ 76 43 37.

Segamegadrive konsola
salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

Nissan Vanette (SS-AK)
salgai. ☎ 21 18 55.

Mendiko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 51 55.

Sofa bat salgai. 20.000 pe-
zeta. ☎ 76 64 71.

Belarritako bat (bola
zuria brillantearekin) galdu
zait. ☎ 76 10 01.

Karakol eskilara salgai.
☎ 76 14 84.

Mastin txakurkumea sal-
gai. ☎ 76 54 26.

Ford Sierra kotxea (SS-
AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Neoprenozko ziklista
txaketa salgai. M neurri-
koa. ☎ 76 52 31.

LANA

OHO eta **BBB** klaseak.
☎ 76 42 08 (Nere).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Etxeko lanak egiten di-
ra. ☎ 76 01 99.

Marrazki teknikoko klaseak
ematen dira. ☎ 12 16 38.

BBB eta **UBI**ko klase parti-
kularrak. ☎ 76 20 04.

Klase partikularrak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituz-
ke. ☎ 76 18 75.

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

Haurrak zaindu eta e-
txeko lanak egingo nituzke.
☎ 76 21 96 (Mertxe).

Mate, fisika eta diedriko
klaseak. 8. maila, selektibi-
tatea. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin eta
haurrak zaintzeko neska
euskalduna behar da.
☎ 76 02 59.

BBB, **UBI** eta unibertsita-
te mailako klase partikula-
rrak. ☎ 76 35 37.

Emakume euskalduna
behar da haurrak zaindu
eta etxeko lanak egiteko
(arratsaldez). ☎ 76 30 37.

Irakasle lizentziatu batek
klaseak ematen ditu Bolun.
☎ 76 47 43.

**EDEL
TAPIZDENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kordinak,
kordinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.**


Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Artekale, 22 BERGARA ☎ 76 16 63



*"Ez gara asko irten.
Herri batzuetara gonbidatu
gaituzte baina gehienbat
herrian bertan abestu dugu"*

*"Pena da kalean eta
tabernetan lehen
kantatzeko zegoen ohitura
galtzea"*

PELLO GARITANO, ALAI TALDEKO KANTARIA

"Ahal dugun bitartean behintzat kalean kantatzen jarraituko dugu"

Alai Taldeak bere XXV. urteurrena betetzen du egunotan. Hori ospatzeko, bihar larunbata, 60 bat lagunek bazkaria egingo dute Alzasun. Era berean, San Martzial egunean Alai Taldeak emanalditxo bat eskeiniko du. Alai Taldearen nondik norakoak hasieratik taldeko kidea izan denak, Pello Garitanok, azaldu dizkiugu.

- Nola sortu zen Alai Taldea?

- Hasieran Lagunartea taldearekin aritzen ginen kantuan, Don Nikomedesekin. Handik denboraldi batera bertan ibilitako batzuek 12 laguneko talde bat osatu genuen, abestea asko gustatzen zitzaigun eta. Batipat tabernetan abesten genuen eta hortik dator izena, bazter guztiak alaitzen genituelako. Herriko auzo denetara ere joaten ginen, meza ostean abesteko. Eta mezetan ere asko abestu izan dugu...

- Herritik kanpora irten zarete?

- Lehenengo urtean Mutrikura joan ginen lehiaketa batean parte har-



Alai Taldea orain bost bat urteko argazkian, Goenkalen.

tzeko. Gipuzkoako 14 talde izan ginen eta irabaztea lortu genuen. Baina ez gara asko irten. Herri batzuetara gonbidatu gaituzte baina gehienbat herrian bertan abestu dugu.

- Zenbat jende ibili da taldean? Nolako errepertorioa duzue?

- 25 urte hauetan 30 bat lagun pasa dira taldeetik eta normalean taldea 12-14 lagunez osatu da; gaur egun 16 lagun gaudu. Eta bi zuzendari izan ditugu, Justo Idigoras eta Alfredo Glez. Chirlaque. Esan behar da Aritzeta

abesbatza Alai Taldetik sortu zela eta Alfredo bertara joan zen zuzendari.

- Nolako errepertorioa duzue?

- Hemengo abesti popularrak kantatzen ditugu: "Beti eskamak kentzen", "Eperrak", "Festara", "Donostiako", e.a. Denak euskaraz, baten bat erderaz izan arren.

- Urtean zehar zenbat emanaldi ematen dituzue?

- Orain gutxiago abesten dugu eta esan daiteke azken 4-5 urteotan Gabonetan eta Santa Ageda bezperan bakarrik kalera-tu garela. Azken finean, jendea beste gauza batzuetan sartuta dago eta nekeza izaten da guztiak biltzea. Baina pena da kalean eta tabernetan kantatzeko lehen zegoen ohitura galtzea. Lehen edozeinek abesten zuen. Orain, berriz, aukera gutxiago dago, jendeak kantuak ezagutzen ez dituelako eta tabernetan abesteko musika kentzeko eskatu behar duzula. Baina, tira, ahal dugun bitartean, behintzat, jarraituko dugu kalean kantatzen.

"Don Nikomedesekin Lagunartea taldean ibilitako batzuek Alai Taldea osatu genuen. Batik bat tabernetan abesten genuen eta hortik dator izena, bazter guztiak alaitzen genituelako"

Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketa

■ EMAITZAK

MATXAKATEGI-EZINLEIKE	2-2
ALTOS PORNOS-XURRUPAK	0-0
ANGIOZAR-MONGATXURRAK	0-2
SHAKTALE-GUADELEST	7-0
LA JUVE-AMILOTX	0-0
A ZE FLAXA-PATXARAN TEAM	6-0
EZINLEIKE-ALTOS PORNOS	0-3
XURRUPAK-ARLOTEAK/OILAGORRA	1-3
FACUTA-MATXAKATEGI	0-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-PAOK	5-1

■ PARTIDUAK

Ostirala 21

19:15: GUADALEST-LA JUVE
20:30: ANGIOZAR-SHAKTALE

Astelehena 24

19:15: MATXAKATEGI-BILDURBAREK OPEL/LAM
20:30: ARLOTEAK/OILAGORRA-PAOK

Asteartea 25

19:15: ALTOS PORNOS-FACUTA
20:30: XURRUPAK-EZINLEIKE

Asteazkena 26

19:15: MONGATXURRAK-SHAKTALE
20:30: LA JUVE-ANGIOZAR

Osteguna 27

19:15: A ZE FLAXA-GUADELEST
20:30: PATXARAN TEAM-AMILOTX



■ SAILKAPENAK

A	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MONGATXURRAK	10	4	14	1
2.	AMILOTX	8	4	6	2
3.	ANGIOZAR	7	4	8	4
4.	LA JUVE	7	4	9	8
5.	A ZE FLAXA	7	4	13	5
6.	SHAKTALE	6	4	16	7
7.	GUADALEST	0	4	1	19
8.	PATXARAN TEAM	0	4	3	24

B	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	BILDURBAREN OPEL/LAM	10	4	12	3
2.	ARLOTEAK/OILAGORRA	8	4	9	4
3.	XURRUPAK	7	4	4	3
4.	MATXAKATEGI	7	4	4	3
5.	ALTOS PORNOS	5	4	5	3
6.	EZINLEIKE	4	4	6	11
7.	FACUTA	3	4	4	6
8.	PAOK	0	4	3	14

■ JOKOZ KANPO



IÑAKI BIRUNBRALES
EZINLEIKE TALDEKOA
ETA ARBITROA

Zer moduz orain arteko partiduetan?

Ez daukagu jokalaria oso onik, baina hor gabilta. 4 partidu jokatu ditugu eta gehiago egin dezakegun arren, gustora gaude.

Jokalaria gazteak gogor datoz...

Bai eta nagusienok kontuz ibili behar dugu hanka indar askorekin sartzen baitute.

Zer gustatzen zaizu gehiago arbitratzea ala jokatzea?

Jokatzea. BKEko infantil taldeak nagusietaraino jokatu dut.

Zer moduz arbitratzen?

Jendea ez da ondo portatzen. Txartel asko barkatzen ditugu, txapelketa ofiziala izan balitz txartel gehiago aterako genituzke.

Joku zikin asko ikusten al da?

Ez, jendeak ez du egur handirik ematen, protestak gehiago dira.

Zaila da arbitratzea?

Bai, jendeak uste du erreza dela eta asko dakiela, baina askok ez dute idearik ere.

Gehien gustatu zaizun taldea?

Talde askok dituzte jokalaria onak. Arloreak-Oilagorrek talde polita du.

Ezinleike hurrengo fasean?

Uste dut sailkatuko garena.

Futbol zelaian adina igartzen al da?

Igartzen da, baina oraindik badaukagu borrokarako espiritua.

■ GOLEGILEAK

5 gol

Xabier Zangitu. Mongatxurrak.

4 gol

Ibai Elorza. Angiozar.
Iñaki Arrieta. Bildurbarek Opel/Lam
Jabi Ibarra. A Ze Flaxa.

3 gol

Patxi Osa. Shaktale.
Iban Etxeberria. Mongatxurrak.
Pako Vallejo. A Ze Flaxa.
Marcos Alonso. Amilotx.

Nesken futbito txapelketa

■ EMAITZAK

BOST TABERNA-BLUE STARS	3-2
POTZU TA ZAPABURUAK-GU GEU	2-1
BOKAGE-POWER RANGERS	3-0

■ PARTIDUAK

LARUNBATEAN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN
11:30: POTZU TA ZAPABURUAK-POWER RANGERS
12:30: GU GEU-BLUE STARS

■ TALDEAK



Bokage taldea Mireia Gonzalez, Naiara Lopez, Maite Astaburuaga, Ainara Alberdi, Raket Gonzalez, Enara Agirre, Ainara Laskurain, Ana Txurruka eta Iart Bilbaok osatzen dute. Push Team izenarekin aritu ziren aurreko txapelketan eta ondo ibili ez arren, jo eta ke jarraitzen dute.

Labegaraietako Kopa Txapelketa

■ EMAITZAK

ERI-A ZE FLAXA	2-0
LA JUVE-NEKROFLIKOS	1-4
ARLOTEAK-OGIZUN	4-2
ORTZI-ERROTAGAIN	3-4
BAR CANALEJAS-MONGATXURRAK	4-4
PAGOMENDI-FAC	7-5
ERROTAGAIN-PAGOMENDI	8-2
BILDURBAREK OPEL/LAM-MADURA	0-6
ARLOTEAK-PATA NEGRA	7-0
BAR CANALEJAS-A ZE FLAXA	3-1
OZAETA-ETXAGI	2-5

■ PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN
16:00: MADURA-ETXAGI (ARLOTEAK)
17:00: ARLOTEAK-NEKROFLIKOS (MADURA)

IGANDEAN BARRUAN (FINALERDIAK)

16:00: MONGATXURRAK-MADURA EDO ETXAGI
17:00: ERROTAGAIN-ARLOTEAK EDO NEKROFLIKOS

Peru Sagarna txirrindularia Gipuzkoako txapelkun

Peru Sagarna Lokatza-Sumofic taldeko txirrindulariak Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan Elgoibarren jokaturako lehen mailako kadeteentzako txapelketan. Txirrindulari gazteak sprintean irabazi zuen lasterketa eta berak esan digunez, "aurten irabazten dudan lehenengo lasterketa da eta oso pozik nago. Lasterketa aurretik Elgoibarrera joan nintzen zirkuitoa ondo ikasteko eta balio izan dit". Lokatzako Jon Mendizabal 3. sailkatu zen eta Ander Agirrek ere lan bikaina egin zuen.



Peru eta Jon Elgoibarko podiumean

Diru laguntza gehiago nahi du Bergara Kirol Elkarteak


Bergara Kirol Elkarteak batzar orokorra egin zuen pasa den ostiralean.

Lehenik eta behin elkartearen egoera ekonomikoari egin zioten errepaso. Futbol sailak aurtengo denboraldirako 13.795.000 pztako aurrekontua zuen eta 14.161.000 pztako gastatu ditu.

Futboleko 366.000 pztako galera izan dute. Pelota sailak 1.129.880 pztako aurrekontua zuen eta 1.217.782 pztako behar izan dituzte, defizita 87.902 pztakoa delarik. Eskubaloioek urte hasieran 1.737.000 pztako aurrekontua zuten, baina 1.924.000 gastatu dituzte, 187.000 pztako defizita sortuz. Saskibaloian aurrekontua 918.000 pztakoa izan da eta 963.000 pztako gastatu dituzte, 45.000 pztako defizita dutelarik.

6 milioiko kreditua

Bestalde, Maria Angeles Muguruza elkarteko diruzainak asanbladan esan zuenez, "6 milioiko kreditua ordaintzeko daukagu. Gastu minimoak, mutualitate, bidaia eta federakuntzen fitxak ordaintzearekin bakarrik diru asko joaten da. Hori



Udaletik jasotzen duten diru kopuruarekin ez daude gustora BKEkoak.

ikusirik, aurreko urteetako gastu minimoen politikarekin jarraituko dugu eta datorren urtean ere jokalariei ez diegu ordainduko". Udaletik 3.900.000 pztako jasoko dute, 1.500.000 futboleko preferente taldearentzako eta 2.400.000 pztako elkarteko beste sailentzat izango dira. "Dirulaguntzak emateko Udalak erabiltzen duen baremoa aldatu egin beharko litzateke. Kontutan izan behar da BKEko 300 kirolari inguru dituela klubean eta Kirol Batzordean parte hartzen duten gainontzeko klubek 150 kirolari inguru dituztela. Halere, batzordean guztiok daukagu boto bakarra eta hori aldatu egin beharko li-

tzateke" adierazi zuen Jonsetxo Muniategi eskubaloia saileko arduradunak.

Datorren urterako aurrekontua mantendu egingo da eta bazkideen kuotak, gazte eta jubilatuenak izan ezik, 1.000 pztatik igoko dira. Elkartearen kirolariek ordaindu beharreko urteko kuota 7.000 pztakoa izango da.

BKEko taldeei dagokienez, guztira 17 talde izango dira. Futboleko talde guztiak jarraituko dute eta gauza berbera gertatuko da pelotarekin. Eskubaloian nagusien 2. taldea desagertu egingo da eta saskibaloian emakumezkoen nagusien taldea ateratzeko ahalegintan dabilta.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3
☎ 76 16 14
Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

TXINPARTAK

Frontenis txapelketaren finalak

Udal Kirol Zerbitzuak antolatu duen Frontenis Txapelketaren finala jokatu da zapatuan goizeko 12etan Zabalotegiko frontoian. Xabier Albisuak eta Jose Caballerok jokatu dute. 11:30etan, 3. eta 4. posturako Karmelo Barcala eta Jokin Ramajok neurtuko dituzte indarrak.

Eneritz Muguruza Euskadiko txapeldun

Eneritz Muguruza igerilariak urrezko domina lortu zuen 100 metro tximeletan Iruñean jokaturako Euskadiko Txapelketan. 100 metro krolen zilarrezko domina eta 200 metro krolen brontzezkoa lortu zituen. Egindako denborei esker asteburuan Malagan jokaturako den Espainiako Txapelketan izango da. Antxon Maiztegik, berriz, 100 metro krol proban brontzezko domina lortu zuen.

San Martzial saria

Peru Sagarna, lehen mailako kadeen Gipuzkoako txapelduna eta Lokatza-Sumofic taldeko txirrindulariek, igandean 16:30etan Bergaran jokatu den VI. San Martzial sarian hartuko dute parte.

Asier Garitano

Berriz ere Euskal Herritik kanpo

Asier Garitanok Cadiz taldea laga ondoren denboraldi bikaina egin du Eibar taldean. Halere, armeroek egin dioten eskaintza ekonomikoarekin ez omen dago oso gustora eta ez du Eibarren jarraituko. Eskaintzak dituen arren, oraindik ez daki non jokatu duen, baina ziurrenik berriz ere maletak egin eta hegoaldera joango da.

- Datorren urtean zer egingo duzu?

- Astelehenean errepresentanteak deitu zidan zerbait bazeukala, baina oraindik ez dakit ezer konkreturik. Ziurrenik 2.B mailako talderen bat izango da eta 3. edo 4. multzokoak izango dira. Mediterraneo edo Andaluzia aldekoak hain zuzen ere.

- Berriz ere kanpora joateko gogoarekin?

- Etxean moduan ez da egoten inon, baina kanpoan ere ondo egon izan naiz. Gainera joango naizen taldean lagunak izango ditut, jende asko ezagutzen baitut.

- Noizbait lehen mailan jokatzeko esperantzarik?

- Esperantza beti dago. 26 urte ditut eta zaila da, baina behin ere ezin da esan zer gertatuko den. Hor dago Aranalderen kasua, Marbellarekin 2.B mailara jeitsi dira eta Camachok Sevillara eramandu. Halere, futbolariaren bizitza dagoen politena da. Gustatzen zai-


zuna egiten duzu eta gainera ordaindu egiten dituzte. Lana ez da oso gogorra gustatzen bazaizu. Txarrena 30 urtekin bukatu egiten dela da.

- Bilbao Athleticen zenbiltzanetik hona aldatu al duzu pentsakerak?

- Bilbao Athleticen lehen mailan jokatzearik pentsatzen duzu bakarrik. Kanpora irtetzen zarenean gauzak aldatu egiten dira. Hemen beti zaude ohituta egunean kobratzen, baina hor kanpoan ez dakizu noiz kobratuko duzun. Jendea desberdina da, adinean gora zoaz eta denetarik ikusten da.

- Hegaldeko taldeen eta Euskal Herriko futbol taldeen artean, ba al dago desberdintasunik?

- Han balio duena emaitzak dira. Cadizekin Carranza torneoa irabazi genuen eta onenak ginen. Baina gero Melillaren aurka galdu eta txarrenak ginen. Irabazten baduzu, nahi duzuna egin dezakezu, gauean irteten, entrenamenduetara ez joan e.a. Bi partidu galtzen badituzu etxetik ere ezin duzu irteten. Hemen, berriz, serioagoak gara eta galdu edo irabazi berdin-berdin jarraitzen dute gauzek.



Eibarren denboraldi ona burutu arren, berriz ere maletak egingo ditu.

"Mediterraneo edo Andaluzia aldeko talderen batera noa"



Aranzadi Ikastolako ikas-bidaia, 1975

Aranzadi Ikastolak bere XXV. urteurrena betetzen du gaur, ekainak 21. Hori ospatzeko gaur arratsaldeko 7etatik aurrera jaialdi bat izango da Frontoian baina bien bitartean garai zaharrak gogoratuko ditugu.

Goiko argazkia 1974-75 ikasturtean 8. mailan ari ziren ikasleen ikas-bidaia da. Kurtsoaren amaiera ospatzeko Santander aldera jo zuten eta, besteak beste, Potes, Picos de Europa, Fuente De, Santillana de Mar edo Santander hiria bisitatu zituzten.

Bidaia ahaztezina, dudarik gabe. Argazkian Jose Mari Elorza, Fernando Etxeberria eta Blanca Narvaiza irakasleak falta diren arren, horra hor argazkian agertzen diren izenak, ezkerretik eskumara.

Goian: Felix Alzelai, Luis Miguel Sarobe, Fede Mujika, Sorkunde Arrieta, Miren Gurutze Arana, Lupe Olabarria, Jose Miguel Sagastume, Arantzazu Narbaiza eta Kike Aperribai.

Makurtuta: Maria Victoria Arizmendi, Mari Carmen Irazabal, Ane Miren Aranzabal, Jaione Osoro eta Fray Jacinto.

Eserita: Pili Olertza, Mikel Agirregabiria eta Jose Ramon Lasa.

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

IGANDETAN
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionaler osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

RK ^ UZ

Udaberri-udako eskaintza berezia!!



**MODELOAK
ERDI
PREZIOAN!!**



- **Logelak**
- **Egongelarako liburutegiak**
- **Sofak**
- **Somierrak**

ALTZARIAK

ARETXABAETA • Araba Etorbidea, 20 • Telefonoa eta faxa: 79 23 51